

Zuzendaritza

Aida Lopez Urbaneja

Kultur Paisaiak eta Ondarearen UNESCO Katedra

UPV/EHUko Ingurugiroaren Zientzietan lizentziaduna (2009) da, Paisajismo Masterra du (UPC) eta Paisaien Kudeaketa Masterra (UPV/EHU) egin du. Herritarren parte hartzearen eta Lurralde, Paisaia eta Ondarearen kudeaketa eta ikerketaren arloan garatu du bere ibilbide profesionala. Egun, Kultur Paisaiak eta Ondarea Unesco Katedran (UPV/EHU) ikertzaile eta koordinatzaile gisa lan egiteaz gain, Paisaiaren Kudeaketa eta Antolamendua hobetzeko sozializazio protokoloei buruzko doktorego-ikerketak burutzen ari da.

Victoria Azpiroz Zabala

Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco

Arkitekturan lizentziatu zen UPV/EHU (Donostia, 1995). Ondoren, hainbat enpresatan eta bere estudioan egin du lan, batez ere eraikuntza eta urbanizazio proiektuetan. 2008an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko Zerbitzuko kide bihurtu zen eta, gaur egun, nagusiki, Paisaiaren eta hura Lurralde Plangintzan sartzearen inguruan egiten du lan.

Partaideak

(agerpen-ordenan)

Agustín Azkarate Garai-Olaun

Ignacio de la Puerta Rueda

Alba Zamarbide Urdaniz

Mar Loren Méndez

Adrián Rodríguez Segura

Francesc Muñoz Ramírez

José Luis Lalana Soto

Arturo Azpeitia Santander

Verónica Benedet

Aniceto Delgado Méndez

Nahir Cantar

Iñigo Galdeano Pérez

Julia Rey Pérez

Manuel Borobio Sanchíz

Iñaki Atxukarro Arruabarrena

Beatriz Sendín Jiménez

Gorka Rodríguez Olea

Marina Ambrosio González



HIRI-PAISAIA HISTORIKOAREN 2030 ERRONKAK

2022ko ekainak 20-21



Kod.: A01-22

Jarduera mota: **Kongresua**

Ziklo: **Gizartea, Arkitektura, Hirigintza**

Kokapena: **Goiuri Jauregia (Vitoria-Gasteiz) + online**

Hizkuntza: **Gaztelania**

Balio akademikoa: **20 ordu**

Matrikula: www.uik.es

2022-06-05era arte

2022-06-12ra arte

Orokorra

60,00 €

80,00 €

Katedraren matrikula berezia

20,00 €

20,00 €

> eskatu: catedra.unesco-paisajes@ehu.es

Informazio gehiago

UDA IKASTAROKAK / CURSOS DE VERANO / SUMMER COURSES

Miramar Jauregia - Mirakontxa Pasealekua - 482007 Donostia / San Sebastián

T.: 943 219511 - info@uik.es - www.uik.es

Antolakuntza Batzordea / Comité Organizador / Organising Committee



Ikastaroaren laguntzaileak / Colaboradores del curso / Course collaborators



<http://www.catedraunesco.eu/>



catedra.unesco-paisajes@ehu.es

Azalpena

Eusko Jaurilaritzako Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak eta Kultur Paisaiak eta Ondarearen UNESCO Katedrak (UPV/EHU) urtero antolatzen dute uda ikastaro bat (biltzar modalitatea), eta, jardute eremu gisa paisaia izanik, gai espezifiko bat planteatzen dute.

Aurtengo ikastaroaren ardatza **Hiri-Paisaia Historikoak** izango dira. Kontzeptu hori UNESCOk sortu zuen, eta hamar urte bete zituen 2021ean. Kontzeptuak izandako bilakaerari buruz hausnartuko da, baita hurrengo hamarkadan zehar izango dituen erronkei buruz ere, kontuan hartuta, bereziki, leku bakoitzeko errealitate soziokulturala. Azaletik azalduta, hiriko paisaia historikoa **prozesu global sozial eta sistemiko bat da, eta ondare mota desberdinen bitartez** (materiala, immateriala, naturala eta kulturala) **barne hartzen ditu lurralde faktore guztiak** (ingurumenekoak, paisajistikoak, ekonomikoak eta sozialak). **Nola kudeatu**, horixe da alderdi kritikoa. Gaur egun, kultura ondareak aurre egin behar die funtzionaltasun eskaerak eta ustiapenari lotutako interes ekonomikoek dakartzaten arriskuei.

Testuinguru horretan, kultura ondasunen rola gainera gaineko eztabaida oreka zezonkor batean kokatzen da beti: alde batetik, ondasun horiei berezkoa zaien izaera errepikaezina dago, eta bestetik, merkatu askeko gizarte globalizatuan duten erabilera, XXI. mendeko mundu garaikidearen ezaugarria. Egungo mundu hiritarrak ezaugarritzat ditu etengabeko dinamismoa, berehalakotasuna eta berritasuna, eta, horien ondorioz, beharrezkoa da hiriak dimentsio finko eta objektibo bat zenean tradizionalki izan duen homogeneotasun kulturala gainditzeko gai izango diren tresnak garatzea. Tresna horiek baliagarriak izan behar dute egungo hiriak kudeatzeko, hots, etengabe eraikitzen ari diren hiri dinamikoak, kontsumo intentsiboko espazio bilakatu direnak, non globalizazioak, hutsaltzeak eta despertsonalizazioak oso bizkor aurrera egiten duten, bertakoa, egunerokoa eta kolektiboa identitatearen gotorleku berritatzat aldarrikatzen dituzten oihu lotsatien artean. Zer gertatzen da hiri paisaia historiko askoren arima elikatzen duten monumentu zaharrek? Nola egituratu behar da herentzian jasotako mendetako ondare horren kudeaketa hiri garaikidearen ekosistema berriaren barruan? Egoera nahasgarria da, ikuspegia edozein dela ere; eta malgutasunak, asmamenak eta praxi egokiak bakarrik harmonizatu ditzakete itxuraz kontraesankorrak diren baina txanpon beraren aurkia eta ifrentzua diren interesak. Ez da erronka makala.

Helburuak

- **GOGOETA BATERATUA** UNESCOk sortutako **HIRI-PAISAI A HISTORIKOAREN** kontzeptuak izan duen bilakaerari buruzko hausnarketa (2011tik gaur egun arte), eta, herritarrek hirietan kalitatezko paisaiaz gozatzeko duten eskubidea onartzeari dagokionez, EAEn onartzen ari garen konpromisoak aurkeztea.
- **TOKIKO IKUSPEGIA**: Beharrak eta urrakortasunak aztertzea. Gaur egun hiriek bizi dituzten kudeaketa- eta babes-arazoak erakusten dituzten kasu praktikoak aurkeztea.
- **ERRONKEN DEFINIZIOA**. Kultura-ondare historikoa duen garrantzian oinarrituz, lurralde-plangintzatik abiatutako hainbat estrategiaren bidez kudeaketan lagun dezaketen tresna praktikoak azaltzea.

Egitaraua

1. EGUNA / Ekainak 20

09:00 - 9:30 AKREDITAZIOA

09:30 - 10:00 **ONGI ETORRIA ETA AURKEZPEN INSTITUZIONALA**

Agustín Azkarate. Kultur Paisaiak eta Ondarearen UNESCO Katedra. UPV/EHU

Ignacio de la Puerta. Eusko Jaurilaritzako Lurralde Plangintza eta Hiri Agenda

10:00 - 11:00 **INAUGURAZIO-HITZALDIAK ETA TESTUINGURUA (I)**

Alba Zamarbide. Aholkularia, Munduko Ondarearen Hirien Programa, Munduko Ondarearen Zentroa, UNESCO. "**Hiri-paisaia historikoari buruzko gomendioaren 10. urteurrena - Erronka berriak**"

Mar Loren Méndez. Sevillako Unibertsitateko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko Katedraduna. **Adrián Rodríguez Segura**. Arkitekto ikertzailea. "**Hiri-Paisaia (historikoaren) genealogiak. Modernitatearen krisitik ondarearen gaurkotze kontzeptualera**"

11:00 - 11:30 **KAFE-GELDIUNEA**

11:30 - 12:30 **INAUGURAZIO-HITZALDIAK ETA TESTUINGURUA (II)**

Francisc Muñoz. Hiri-Geografiako irakaslea. Bartzelonako UAB-eko Urbanizazioaren Behatokiko zuzendaria. "**Hiri-paisaia historikoa gaur: aukerak eta estrategiak urbanizazioaren aurka**"

José Luis Lalana. Valladolideko Unibertsitateko Hirigintza Unibertsitate Institutua. "**Paisaia eta hiri-ondareak**"

12:30 - 13:15 **EZTABAIDA MODERATUA HIZLARI ETA PUBLIKOAREKIN**

Moderatzailea: Arturo Azeitia. Kultur Paisaiak eta Ondarearen UNESCO Katedra.

13:30 - 15:30 **GELDIUNE LIBREA**

15:30 - 17:00

BANAKAKO AURKEZPENAK. Tokiko ikuspegia: Beharrak eta urrakortasunak

Verónica Benedet. GPAC - UPV/EHU. "**Begirada berriak XX. mendeko bizitegi-ondarearen kudeaketa sortzaileerako**"

Aniceto Delgado. Ondare Historikoaren Andaluziako Institutua. "**Kultura-ondare immateriala babestea hiri-testuinguruetan. Erresistentzia, utopia eta errealitatea**"

Nahir Cantar. CONICET - IHAM, FAUD, UNMdP. "**Hiri-ondare eta iraunkortasuna. Dimentsio soziokulturetik aztertze adierazleak**"

17:00 - 17:30 **GALDERAK ETA EZTABAIDA**

17:30 - 19:30 (gutxi gorabehera) **"BISITA GIDATUA Gasteizko harresietara"**

2. EGUNA / Ekainak 21

09:00 - 9:30 **GONBIDATUTAKO KOMUNIKAZIO LABURRAK**

Iñigo Galdeano. UPV/EHU. "**Building better, buiñding beautiful**"
Julia Rey. Sevillako Unibertsitatea. "**Ondare-hiria kudeatzeko modu berrien beharra. Hiri-Paisaia Historikoari buruzko gomendioa ezartzeko erronka**"

9:30 - 10:15 **GOGOETA**

Manuel Borobio. ABTEMAS SL, Santiagoko Unibertsitatea, FUNDICOT. "**Iritsi, gurutzatu eta egon. Hiri-Paisaia Historikoaren eskalari, intentsitateari eta denborari buruzko hausnarketa**"

10:15 - 11:00

BANAKAKO AURKEZPENAK. Erronkak eta konponbideak (I)

Victoria Azpiroz. Eusko Jaurilaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. "**Paisaiaren arloko jardunbide egokien gida: bizitegi-garapenak 1950-1975**"

Iñaki Atxukarro. Donostiko Udaletxea. "**Donostiako erabilera turistikoaren hirigintza-erregulazioa**"

11:00 - 11:30 **KAFE-GELDIUNEA**

11:30 - 12:30

BANAKAKO AURKEZPENAK. Erronkak eta konponbideak (II)

Beatriz Sendín. n'UNDO. "**Kenketatik**"

Gorka Rodríguez. URBANBAT. "**Ondareaz okupatzea**"

Marina Ambrosio. Ingurumen Aholkularia, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko ikertzailea. "**Ekipamendu publikoak eta paisaia-balioak bateragarri egitea PUH-etan: Segoviako asistentzia- eta hezkuntza-eremua handitzeko paisaia-integratioari buruzko azterlanaren kasu praktikoa**"

12:30 - 13:00 **GALDERAK ETA EZTABAIDA**

13:00 - 13:30

ITXIERA

Aída López. Kultur Paisaiak eta Ondarearen UNESCO Katedra